




ASMOZ TA JAKITEZ

EUSKO
IKASKUNTZA



Menchu Gal



24

MANUEL LEKUONA Saria
Premio MANUEL LEKUONA

Datu biografikoak	5
Datos biográficos	31
Une gogoangarriak	59
Momentos memorables	59
Bibliografía	77

Margolaria eta emakumea

Emakumea, margolaria, figurazioa, modernitatea, abangoardia, gerra zibila, frankismoa, neofigurazioa... hitz guzti hauek, konbinatuak, emaitza desberdinak ematen badituzte ere, horietako bat, gure testuinguruan behintzat, izen eta abizen zehatzak ditu: Menchu Gal Orendain. Emakume hau, Irungo margolari figuratiboa Menchu Gal (Irun, 1918), Manuel Lekuona saria jaso duen bigarren emakumea baita, eta ez bakarrik bere izenean hasieran aipatu ditugun balore guztiak biltzeagatik, baizik eta gainera modu paregabea, askean, koherentean, ausartean eta apartazkoan lortzeagatik, nahiz eta aurrera egiteko orduan, bai artistikoki bai historikoki, baldintza gogorrek aurkitu zituen.

Emakumea izanik, gizonezkoek nagusitasuna zuten giro artistikoari aurre egiteaz gain, Menchu Gal margolari figuratiboak baita ere abangoardia erradikalenean onespenez guztiak jaso zituzten garai bati aurre egin behar izan zion. Baldintza historikoekiko, demokraziaren itzuleraraino, oroitu behar gara Espainiako XX. mendea ez zela sormen artistikoa bultzatzeko garai aproposenetakoa izan; aurrena gerra zibila eta ondoren erregimen frankista, bokazioz margolaria izan eta jarduera honetat bizi nahi zuten artistei gutxi edo ezer lagundu zieten. Hala ere, zorionez, giro artistiko honetan eta baldintza historiko hauen artean, artista batzuek esfortzu asko eginez lortu zuten ez bakarrik margolanez bizi ahal izatea, baizik eta gainera ibilbide koherente bat garatzea, sinisten zuten lengoia artistikoaren alde apustua eginez.



Menchu Gal mota honetako artista izan da baina, gainera, emakumea izanik, horrek suposatu dion zailtasunekin, duen guztia lortu izan baitu bere emakume kondiziotik abiatuz. Horregatik, Eusko Ikaskuntzak antolatzen Manuel Lekuona saria 2006an Menchu Gali emanaz, ez dira soilik margolari paregabe - aske, koherente eta ausarta izan delako- baten lana eta ibilbidea eskertzen eta saritzen, baizik baita emakumeak lortu duena giro ezohiko eta kontrako batean lortu duelako, zailtasunez beterik. Badira beste margolari eta beste emakumeak ere merituak bildu dituztenak honelako sari garrantzitsu bat jasotzeko, baina Menchu Galen bikaintasuna, gizaki bera izanik bi arlo desberdinetan, hots, margolari eta emakumea, batera egotea da.

Modernitatea eta abangoardia

Menchu Galetaz hitz egiteko orduan baloreen artean lehen lekuan paregabe hitza erabili dugunean kontzienteki egin dugu, bai bere margolanak bai bere ibilbide artistikoa ez direlako bakarrik askeak izan, baita koherenteak ere eta, batez ere, ausartak. Historia eta artea garaikide izenaren bidez ezagutzen dugun garai honetan, eta ondorioz, abangoardia izenekoak nagusiagoa izanik lengoaia artistiko berritzaileen eta iraultzaileen aldeko apustuak nabarmendu diren garai honetan, Menchu Galek jakin izan du ez bakarrik bere berezko ibilbide artistikoa egiten, arte garaikidearen hasierarekin batera hasten dena —inpresionismoarekin eta postinpresionismoarekin, gehienbat—, baita abangoardiaren zenbait ezaugarriak barneratu ere —fauvismotik hasiz espresionismoraino, baina baita kubismoaren edota abstrakzioaren zenbait ezaugarri hartuz ere —, amaieran leku desberdin eta berezi paregabe batera helduz, Menchu Gal berak soilik garatu ahal izan duena.

Ahaztu ezin duguna zera da, Menchu Galek bere ibilbide artistiko guztiaren zehar, beti margolan figuratiboen alde egin duela, hasieratik egun arte, eta apustu honek bere ibilbide artistikoan ere hainbat zailtasun ekarri dizkiola. Oroitu behar gara, margolan figuratiboak, edo modu okerrean errealistak ere deitzen ditugunak, arte garaikidearen hasierarekin batera krisian sartu zirela, aurrena inpresionismoaren eta, ondoren, postinpresionismoaren eraginez, baina baita beste baldintzen artean ere, argazkigintzaren sorrera eta garapenarengatik. Berez, garai honetan, errealitatearen errepresentazio zehatzaz gain, ordura arteko beste kontzeptu ukiezinak ere krisian sartu ziren,



adibidez, narrazioarena edo edertasunarena, ordura arte bai pinturan, zehazki, bai arte ederretan, orokorrean, ezinbesteko ezaugarri bezala ikusi izan zirenak. Ondorioz, aurrena inpresionismoaren eta ondoren postinpresionismoaren oldarka sartzea, eta geroago, abangoardia izenez ezagutzen ditugun mugimenduen eta tendentzien nagusigoa —kubismotik hasiz surrealismoraino, fauvismotik, espresionismotik, futurismotik, konstruktibismotik, neoplastizismotik, dadaismotik eta abstrakziotik, pasatuz— errealismoa ezaugarritzat zuten margolan figuratiboak baztertuak eta askotan mesprezatuak izatea ekarri zuen.

Hala ere, gaur egun, ohiko ikuspegi hau aldatzen ari da, eta ez bakarrik garai honen inguruko ikerketa berriek erakutsi digutelako abangoardia figuratiboa izenekoa egon zela —adibidez, surrealismoan bertan garatutakoa— baizik eta, baita ere, ondorengo artearen historiak, hirurogeiko hamarkadatik aurrera, figurazioa berreskuratu duelako arte garaikidearentzat, mugimendu eta tendentzia desberdinen bitartez —figurazio berria Estatu Batuetan eta Espainian, neoespresionismoa Alemanian edota transbanguardia Italian—, eta ondorioz, egun figurazioa arte garaikideak gara dezakeen beste lengoaia bat bezala nagusiki ulertzen da.

Baina garapen honetan eta egoera berri honetara heldu arte, lengoaia figuratiboaren alde soilik apustua egitea, beste artisten artean, Menchu Galek egin duen bezala, ez da batere erraza izan. Espainiako giro artistikoa, baldintza historikoak, ekonomikoak, sozialak eta kulturalak bezala, ez bazen ere batere aproposa orokorrean sormen artistikoarentzat izan, eta gutxiago apustu berritzaile eta iraultzaileentzat, bai hogeita hamarreko hamarkadan, bai ondoren berrogeita hamarrekoan ere, azkenean Espainiako giro artistikoan abangoardiako artea sortu zen, gainera bigarren garaian, hirurogeiko hamarkadatik aurrera, estilo figuratiboarekiko abantalia lortuz.

Baina gainera, ondoren, lan honen hurrengo ataletan bizitza eta ibilbidea aztertzen ditugunean ikusiko dugun bezala, Menchu Gal, bere belaunaldiko beste margolariak bezala, ez zuen ohiturazko margolan figuratiboen aldeko apustua egin, beste



garaietako tradizioetara lotutakoa —errenazimendua, barrokoa, erromantizismoa edota errealismoa, gehienbat—, baizik eta arte garaikidetik gehien liluratzen zituzten ezaugarriak hartu nahi izan zituen —fauvismoaren kolorea, espresionismoaren pintzelada, kubismoaren konposizioa eta abstrakzioaren ehundura. Eta guztiak elkartu zituen errealtatearekin, bera izan baita beti bere inspirazio iturri nagusia; hala ere, argi eta garbi utzi behar da berak errealtatea beti bere emozioaren bitartez irudikatu duela, hots, subjektibatuz, hau da, ikusitakoa bere sentsazioen bitartez itzuliz. Horregatik, Menchu Galen margolanez hitz egin eta definitzen saiatzen garenean, termino zuzenena ez da abangoardia hitza erabiltzea, baizik eta modernitatea, artearen arloan hitza anbigua, XVI, XVII eta XVIII. mendeetako garaian emandako artea eta historia definitzeko ere erabiltzen baitugu; baina baita hitz hau erabiltzen dugulako ere, margolanen arloan, aro garaikidean abangoardiaren alde apusturik egin ez zuten artistak definitzeko, zeintzuak tradizioa eta abangoardiaren artean zubiak eraikitzen saiatzen ziren, batez ere, lengoaia artistiko pertsonalak eta paregabeak sortzen; arte garaikide izeneko garai konplexuan definitzeko eta klasifikatzeko lengoaia zailak gertatu ziren.

Gainera, aipatu beharra dugu, Espainiako testuinguruan, hamarkada batzuk lehenago Europakoan bezala hirurogeiko hamarralditik aurrera, figurazioa baztertua izan zela, ez bakarrik giro artistikoetan nagusigoa eta garrantzia gehien zutenen artean —galeriak, lehiaketak, sariak— baizik eta baita erregimen frankistak berak erabakia hartu zuela ere, tradizioan oinarrituta eta konbentziozko iraganarekin lotutako estilo artistikoa gustukoa bazuen ere, ulertu baitzuen abangoardien aldeko jarreraren defentsa nazioarteko giroetan onespena ekarriko ziola, modu honekin irabaziz, berezkoak zituen ezaugarri politiko, ekonomiko eta sozialen bitartez lortzen ez zuena. Horregatik, Menchu Galek bere ibilbide luze eta oparoaren zehar errekonozimendu ugari jaso baditu ere, bere ibilbidea oso zaila izan da, artista bezala heldutasunera heltzen ari zen momentu berean —berrogeita hamarreko hamarkadaren amaieran—, bere belaunaldiko beste margolariei gertatu zitzaie bezala, bera ere ahanztura eta mesprezua pairatu baitzituen. Berez, hirurogeiko hamarralditik aurrera bai nazioarteko giroan bai Espainian bertan, figurazioa



berreskuratu bazen ere, orokorki neofigurazioa deritzogun mugimenduen bitartez, Menchu Galentzat eta bere belaunaldiko beste kideentzat ere, aldarrikapen hau berandu heldu zitzaien, arte garaikidean figurazioaren berreskurapenaz gain, gizartean eta komunikabideetan bezala, beste kontzeptu batzuk ere modan ipini baitziren, eta horien artean, onerako eta txarrerako, gaztetasunarena nabarmendu behar da. Hala ere, eta gauzak horrela izanik, Menchu Galek berezkoa duen lengoaia artistikoaren alde apustua egiten jarraitu egin du eta egun jarraitzen du, nahiz eta bere ibilbidearen zehar, beharrezkoa eta logikoa den neurrian, garapen bat egon den eta bizitu izan dituen baldintza historikoei, artistikoei eta pertsonalei lotuta beti moldatu da, paregabe, aske, koherente, ausart eta apartazkoa izanik.

Estiloa eta generoak

Onak diren artista guztiei gertatzen zaien bezala, Menchu Galek aurrerago aztertuko dugun bere bizi eta ibilbide luze eta oparoan zehar, bere estiloan etapa eta aldaketa garrantzitsuak bizitu baditu ere, egungo egoerak ematen digun perspektibatik aztertuz, bere garapena guztiz koherentea izan dela onartu behar dugu, eta ezaugarri batzuk aldatzen joan badira ere, beste batzuk errepikatu egin dira, eta guzti horrek hain zaila definitzekoa den estilo izenekoa sortu du.

Lehenengoz, Menchu Galen lanean, aurretik aipatu dugun bezala, argi eta garbi nabarmentzen den lehen gauza figurazioaren aldeko apustua da. Baina Menchu Galek lantzen duen figurazioa, lehen ere esandakoarekin bat eginez, ez da errealista, berez, bere margolanetan ez dugu inoiz bere begiek ikusten dutenaren irudikapen zehatzik aurkituko, baizik eta aurrez duenaren sentsazioa. Horretarako, lehenengoz, errealitateaz jabetzen da, ikusitakoa subjektibatuz, eta ondoren, bere bizipen pertsonalak gehituz, lan berri bat sortzen du, gehienetan errealitateetik urrundu dena, baina bere izaerara hurbilduz, berak nahiago baitu deskribapen hutsean geratu baino iradokizunak proposatu, eta bere pintzeladen eta koloreen artean, bere buruaz hitz egin.

Figurazioaren ondoren, Menchu Galen lanean nabarmenki azaltzen den bigarren ezaugarria kolorearen aldeko bere biziko apustua da, baina ez bakarrik erabiltzen dituen kolore tonuekiko, biziak, alaiak eta intentsuak, gehienbat, baizik eta koloreak nagusitasun osoa duelako margolanean, koloreak berak hartzen baitu marrazkiaren protagonismoa, eta elkar fusionatuz, marrazkia bera desagertzen da. Izan ere, Menchu Galen trazua



pintzelada zabal, aske eta urduri batean oinarritzen da, kulunkatzen diren mugimenduak osatuz, modu arin eta bigun batean biratuz eta, printzipioz behintzat, espontaneoka. Koloreekiko, bere ibilbidean garapen fase desberdinak ezagutu baditu ere, orokorrean, bere kolore gogokoena orlegia, urdina eta gorria izan dira, bere tonu intentsuenetan eta alaienetan, beraien bitartez, gehienetan, bizitzarekiko poza igoz.

Bere lanean nabarmendu beharreko beste ezaugarrietako bat, konposizioaren aurrean izan eta mantendu duen jarrera da. Bere hasieretatik, Menchu Gal bere margolanetan konposizioa planteatzeko orduan oso original izan zen, ohikoa zen bezala, parez pare irudizatu beharrean, ikuspuntu pertsonalen alde, konbentzientetik at, apustu egiten baitzuen. Berez, bere ibilbidean zehar, arlo honetan, bere jarrera originala izaten jarraitu du, parez pare irudizatzera itzuli bada ere, eta horrela jarraitu du; bere konposizioetan ez da perspektibarik eta, ondorioz, margolanaren elementu guztiak plano berean lerrotatzen direla ematen du, edo beste batzuetan, planoak tartekatu egiten direla, distantziak nahasiz. Baina ezaugarri hauek pentsarazi badezakete ere, ondorioz, bere konposizioak antolamendurik gabekoak direla, ez da horrela, konposizioarekiko bukaerako emaitza, alderantziz, beti oso antolatuta egoten baita; nahiz eta bere margolana aska eta dinamikoa izan bere konposizioak beti dira kontzienteak eta aurrez prestatuak.

Menchu Galek bere ibilbidean zehar gehien landu dituen generoekiko, hiru izan dira, erretratu, bodegoia eta paisaia, nahiz eta azken genero honek nabarmenki nagusitasuna izan duen, batez ere hirurogeiko hamarkadatik aurrera. Eta nahiz eta hiru generoetan artista bera aurkitu, logikoa den bezala, aipatzekoa da Menchu Galek genero hauetako bakoitza berezko ezaugarriekin landu duela, erretratuaren eta bodegoiaren kasutan zenbait ezaugarrietan orokorrekin kontrajarriz, bereziki paisaian garatu dituenarekiko.

Hala ere, Menchu Galek gustuko izan duen generoa, gaur egun ere, paisaiarena izan da. Bere paisaietan Menchu Galek bai errealitatea bai funtsezko ez dena baztertzen du, eta gauza guztien gainera baloratzen duena irudikatzen duenaren emozioa



da, bere paisaiak ez baitira aurrean duen naturaren deskribapen zehatzean oinarritzen, baizik eta ikusitakoaren interpretazio pertsonalean, lehenengoz paisaia barneratuz gero bere ukitu poetikoaren bitartez paisaia horren ikuspegi pertsonala igorri ahal izateko. Berez, Menchu Galek Espainiako geografiaren zehar leku desberdinetako paisaia asko margotu baditu ere —nahiz eta nagusiki Gaztela eta Euskal Herriko paisaiak bereziki gustukoak izan dituen—, bere paisaia guztietan bizi poza bera transmititzen du; hala ere, onartu beharra dago, seguruenik, erraztasun handiagoa aurkitzen duela ikusten eta sentitzen duena espresatzeko eta komunikatzeko orduan Gipuzkoako paisaiaren aurrean.

Bestalde, bai bodegoian bai erretratuan, Menchu Galen estiloa beti diziplina zorrotzago batera moldatu da. Horrela, bodegoian berriro ere garrantzitsuena margolanak igortzen duen sentsazio orokorra bada ere, eta horretarako gehienbat, bere ibilbidearen etapan arabera, detaileak baztertzen baditu ere, genero honetan bere estiloa lehorragoa eta sinpleagoa da, azken emaitza aurretik prestatuta baitago, eta ondorioz, konposizioa ere zehatzagoa da eta baldintzatuago dago, eta tonuak ere xaloagoak dira.

Era berean, bere erretratuek ere, beti oinarritzko ezaugarriak soilik bilatzen dituzte, bitartekoen ekonomia. Horrela, hondo neutro batetik abiatuz, eta ondorioz erreferentzi espazialak edo edozein motatako eszenografiak baztertuz, arreta margolanaren gai nagusiak eskuratzen du —erretratuko pertsonaia. Menchu Galek gorputzak bolumen eskultorikoekin eta aurpegiak bere baitan bilduta, ametsetan bezala osatzen baititu, Irungo margolariak bere pertsonaien psikologiaren barna sartu nahiko balu bezala, norbanakoaren intimitatearen misterioa edo bilatu nahian.

Bai bodegoietan bai erretratuetan heldu zaizkigun adibideak paisaiekin alderatzen baditugu kopuruz gutxiago badira ere, eta agian, ez dira ikuslego orokorraren aldetik lan ezagunenak, kalitate handikoak dira ere, eta berez, Menchu Galek egindako lanen artean maisu lanetako batzuk bi genero hauetan aurki ditzakegu.



Amaitzeko, diziplinekiko, Menchu Galen lanen gehiengoa mihise gaineko olioan egina badago ere, baita ere bere akuarela ugari nabarmendu behar dira, hauetan Irungo margolaria beti askeagoa azaldu baitzaigu, eta bai ilustrazioarekiko bai arlo grafikoarekiko bere lana kopuruz txikiagoa izan bada ere, bi diziplina hauetan beti kontuan hartuz bakoitzak izan ditzakeen berezko ezaugarriak, bere ezaugarri ohikoenak ere garatu ditu.

Eskolak eta eraginak

Artista guztiek, jenio handienak ere, bai estiloa bai lana iraganetik eta unetik jasotako eraginen ondorioz garatzen dituztela erantzunezina da. Menchu Galen kasuan, ondorioz, bere ibilbide luzearen zehar baita ere mugimendu, estilo, eskola eta artista desberdinetatik estimuluak jaso ditu, eta horrela, eragina horiek jasota, bere lana burutu ahal izan du. Lehen aipatu dugun bezala, Menchu Galen kasuan, gainera, bizitzera tokatu zaizkion baldintza artistikoen eta historikoen ondorioz, bai bere estiloa bai bere lana bidegurutze konplexu batean kokatu dira; bertan ibilbide pertsonal eta paregabea garatzeko ezaugarri eta eragin egokien eta interesgarrienak aztertzea eta aukeratzea zaila da. Bere bizitza luze eta oparoa eskaintzen digun perspektibari esker, eta egun dugun kokapena probestuz, Menchu Galek estilo pertsonal, berezko eta originala, eta askotan imitatua, izatea lortu duela baieztatu dezakegu, bere lana jaso dituen hainbat iturrietako eraginen emaitza izanik.

Lehenengo, Menchu Gal gaztean inpresionismoak eta postinpresionismoak —bereziki Paul Cézanne lanak— izandako eragina nabarmendu behar da, Irungo Gaspar Montes Iturrioz margolariaren adibidearen eta irakaskuntzaren bitartez. Berez, Menchu Gal gazteak, gaian aditu batzuen ustetan Bidasoa Eskolatzat har daitekeen mugimenduaren bitartez bere ibilbide artistikoa hasi zuen, garatutako estiloan efektu kromatikoak eta argiaren konposaketa nabarmenduz.

Baina bere bizitza aztertzen dugunean ohartuko garen bezala, gaztetatik Menchu Galeri ez zitzaion estimulurik falta, 13 urte besterik ez zituela Parisen ikasten egon baitzen Amédée Ozenfant margolari puristaren akademian —honek kubismo sintetikoaren



ondorengo zaindu eta aszetikoa lantzen zuen— eta bertan ere Fernand Leger eta André Lothe ezagutu zituen, abangoardiako bi margolari ospetsuek kubismoaren irakurketa modu pertsonalean ere egiten zutenek. Hasierako eragin hauei, gainera, fauvistek orokorrean eta bereziki Henri Matissek zeharka sortutako eragina gehitu behar diegu, azken hau Irungo margolari gazteak kasualki Parisen ezagutu baitzuen, bere estiloaz eta margolanaz maiteminduta geratuz.

Bere ibilbidearen hasiera honetan beste bi margolari oso garrantzitsuak honako hauek izan ziren, alde batetik, Aurelio Arteta artista euskalduna, gerra zibila baino lehenago Menchu Galek Madrilgo Arte Ederretako San Fernando Akademian ezagutu zuena, eta bestetik, ondoren, urte batzuk geroago, frankismoaren lehenengo fasean, Daniel Vázquez Díaz, jatorriz Huelvako artista, baina Bidasoako paisaiarekin eta eskolarekin lotura handia izan zuen margolaria. Bien artean Menchu Galen estiloan Parisko abangoardiaren eragina leuntzea lortu zuten, nahiz eta bera ere eragin hauek ez zuten gehiegi konbentzitzen. Gainera, bi margolari hauen ereduari jarraituz, Menchu Galek ere kubismoan sakondu zuen, batez ere konposizioaren arloan, eta bera ere bere kolore-paleta tonu apalagoekin moteldu zuen.

Hurrengo inflexio puntu garrantzitsua Menchu Galen estiloan, lanean eta ibilbidean, lehen aipatutako Madrilgo berrogeiko hamarkada horretan, bizitu zituen bi topaketa izan ziren, lehena, Benjamin Palencia margolariarekin, eta ondoren, bigarrena, Madrilgo Eskola izenez ezagutzen den taldearekin.

Palenciak momentu horretarako hogeita hamarreko hamarraldiko abangoardien erradikalatasuna baztertu bazuen ere, berrogeigarren hamarkadan Espainian Frankoren diktaduraren eraginez nagusigoa zuen hemeretzigarren mendeko akademizismoan ere erori gabe zegoen; berez, bere margolanek garai honetan arrakasta eta onespren handia jaso zituzten, tradizioaren eta modernitatearen artean mugituz, eta kromatismo intentsu baten aldeko apustua eginez. Eragin horrek, dudarik gabe, Menchu Galek berak aurretik ezagutzen zuen eragin fauvislarantz eramaten zuen berriro, eta horregatik diogu momentu hau ezinbestekoa izan zela Irungo margolariaren



ibilbidean, hemendik aurrera, eta egun arte, bere estiloaren ezaugarri garrantzitsuenak hartuko baititu. Garai honetan ere, lehen aipatu dugun bezala, Madrilgo Eskolan parte hartzen zuen bitartean —Espainiako artearen historian horrela deitzen zaio garai honetan sortutako taldeari— Irungo margolariak berak aldeko apustua egin zuten ezaugarriak baieztatuta ikusi zituen; hala ere, aipatu beharra dago, talde hau ez zuela talde gisa sekular funtzionatu eta, berez, elkartu zituen bi ezaugarriak Benjamin Palenciaren eragina eta irakaskuntza, eta modernitatearen aldeko apustua, komunezko ezaugarri bakarrak izan ziren.

Madrilgo Eskolako kideak —beraien artean Menchu Galez gain, taldeko emakume bakarra, Luis García Ochoa gipuzkoarra ere bertan zegoen, eta beste batzuen artean honako margolari hauek: Francisco San José, Álvaro Delgado, Gregorio del Olmo, Cirilo Martínez Novillo, Agustín Redondela, Enrique Núñez Castelo, Pedro Mozos eta Carlos Pascual de Lara— modernitatearen aldeko apustua egin zuten tradizioaren esparruan, baina azken honi uko egin gabe, beraienezko modernitatea gerra zibilaren amaieran lortutako garaipenaren ondorioz erregimen frankistak inposatu nahi zuten akademizismo kontserbadorearen aurkari moduan ulertzen baitzuten. Horregatik, Madrilgo Eskolaren estiloa moderatua zen, neurritzkoa eta lasaia, errealitateetik urrun eta idealizatu gabeko figurazioaren aldeko apustua eginez, baina haustura estilistikoak proposatu gabe. Baina, Madrilgo Eskolaren ezaugarri nagusien artean izaera iraultzailea nabarmendu ez bazen ere, asmo berritzaileak izan zituen, bai tradizioan oinarritutako figurazioan eta baita ere figurazioa bera onartzen ez zuten abangoardien formen aldeko apustua eginez. Gainera, eskola honetako margolari gehienak nahita, paisaiaren generoaren aldeko apustua egin zuten, modu honetan albo batera utziz arazo ideologikoak eta politikoak sor zituzketen beste generoak. Zoritxarrez, berrogeita hamargarren hamarkadan Espainiako estatuan abangoardiak modernitateari lekua kendu zionean, saiakera laudagarri horrek amaiera azkarra izan zuten, eta figurazioa lengoia abstraktuengatik ordezkaturik izan zen, Kataluniako Dau al Set edo Madrileko El Paso bezalako taldeek defendatzen zuten lengoia berria modan ipiniz; instituzio frankistak ere, hasieran sariak eta onespenez eman bazizkien ere, geroago baztertu egingo ditu, erregimenak estilo berri hau



erabili nahi izan zuelako nazioartean bere irudia hobekiago saltzeko eta onespena irabazteko asmotan.

Baina ordurako, Menchu Galek ikasteko garai luze eta oparoak amaituak zituen, eta bere bide propioa hasteko eta jarraitzeko erabakia hartu zuen, geroztik bere inguruan gertatutako guztiari beti adi egoten jarraitu badu ere, hirurogei hamarkadan bere ibilbidearen garai interesgarrienetakoan sartzea erabaki zuen bezala, Chaïm Soutinen antzeko espresionismoaren edota abstrakzioaren alderdi materikoaren eta informalistaren eragina jasoz. Hala ere, orduan ere, Menchu Galek ez zuen berezko estiloa aldatu, baizik eta lengoaia abstraktutik hobekien etortzen zitzaiona bere lanean hartu zuen, modu horretan, bere estiloa eta ibilbidea bera ere aberastuz. Baina garapen guzti hau hobekiago ulertzeko, bai bere estiloarekiko zein ibilbidearekiko, bere bizitza errepasatu beharra daukagu.

Bizitza eta ibilbidea

Menchu Gal Irunen 1918an jaio zen, musika eta liburuez inguratutako famili aberats eta kulturadun batean. Bere inguru familiarrean aurrekari artistikorik ez bada ezagutzen ere, oso gaztetik Menchu Galek bere ingurukoetatik margolanarekiko zuen zaletasuna arraroa izan ez zedin estimulu franko hartu zituen. Berez, eskolan jasotako margolan klaseaz gain, bederatzirte besterik ez zituela Gaspar Montes Iturriozek Irunen ematen zituen eskoletara joaten hasi zen; ordurako Montes Iturrioz margolari ospetsua zen, eta neska gaztearengan pinturara dedikatzeko beharrezko dohainak ikusi zituen. Horrela, lau urte beranduago, 1931ko abenduan, Menchu Gal gazteak 13 urte besterik ez zituela, Montes Iturriozek berak familia bultzatu zuen gaztea Parisera bidaltzea lortu zuten, ikasketetarako dirulaguntza baten bitartez. Parisen 1932ko ekaina bitartean egon zen, aurrena lau hilabetetan zehar Amédée Ozenfant margolari puristaren akademiara joanez —bertan baita Fernand Leger eta André Lothe ezagutu zituen—, eta geroago, azken bi hilabetetan, Grande Chaumiere izeneko akademian ikasiz. Baina bere lehen bidai labor honetan fauvismoa ere aurkitu zuen, kasualki margolari talde honen erakusketa bat ikusteko aukera izan baitzuen, bertan Henri Matisse margolariaren lanarekin txundituta geratuz.

1932an, Frantziatik itzulitakoan, 14 urte besterik ez zituela, taldeko erakusketetan parte hartzen hasi zen, bereziki Irunen eta Donostian, nabarmenduz urte horretan bertan Donostiako San Telmo Museoan antolatutakoa “Artistas Vascos” izenekoa. Gainera, hurrengo urtean, 1933an, Gipuzkoako Diputazioak artista gazteentzat antolatzen zituen lehiaketetara bere burua aurkezteari hasi zuen, bi urte beranduago, 1935ean, parte hartzea errepikatuz.



Urte bat lehenago, 1934an, Madrilera abiatu zen Arte Ederretako San Fernando Akademian Aurelio Arteta artista euskaldunaren klaseetara joateko asmoarekin. Gainera, Espainiako hiriburuan zegoela probestuz, Marisa Roesset margolariaren estudiora ere joaten hasi zen, klaseak hartuz; garai horretan Roesset emakumezkoa eta margolaria izanik, arrakasta handiko artista zen. Garai honetan ere, 1936ko uda arte luzatuko dena, Menchu Gal Irun eta Madril artean bizi izan zen, eta Irungo margolariak taldeko erakusketetan parte hartzen jarraitu zuen —euskal artista talde batek antolatutakoa, esaterako, Bilbon 1935ean— eta bere aurreneko sari garrantzitsua jaso zuen, Madrilgo Arte Ederretakoa Zirkuluak 1936an antolatutako kartel lehiaketako lehen saria, alegia.

Menchu Galen ibilbidearen lehen garai honetan bere obraren ezaugarri nabarmenena inpresionismoa eta postinpresionismoaren jarraipena egitea izan zen, izaera naturalista zuen errealismo joerako estiloa garatuz, eta bertan forma modelatuak eta marrazkiaren garrantzia azpimarratuz. Berez, garai honetan Menchu Galek bere bidaiari esker Pariseko abangoardia ezagutu bazuen ere, honek izandako eragina ez da asko nabaritzen bere lanean. Horrela, Montes Iturrioz aurrena, eta geroago Artetaren eraginez, Menchu Galek bere margolanetan kubismoa egokitzea lortu zuen, eta bereziki konposizioaren alorrean, eta paletaren kolore tonuak soilagoak bihurtu zituen.

1936ko uztailean, Menchu Gal gerra zibilaren hasierak Irunen harrapatu zuen, bertan udara ematen ari baitzen. Eta mugako hiria egoera larrian geratu zenez, Menchu Galen familiak Frantziara ihes egitea erabaki zuen, Bearneko eskualdera, Tardets hirian gehienbat bizi izan zirelarik. Gerra amaitutakoan Irunera itzuli ziren, eta orduan Menchu Galek pinturara dedikatzea eta ofizio honetatik bizitzen saiatuko zela erabakia hartu zuen. Hori dela eta, nahiz eta garai horretan bai artearen bai ekonomiaren egoera ezin okerragoa izan, Menchu Galek ez zuen etsi eta Irunen zein Donostian hainbat taldeko erakusketetara bere burua aurkezten jarraitu zuen, eta 1942an Donostian bere bakarkako lehen erakusketa antolatzea ere lortu zuen, non eta hirian zen Gipuzkoako Ateneoarekin erregimen frankistak egokitutako Turismo eta Atrakziorako Zentroaren gela nagusian.



Hala ere, garai honetan, erakusketen arloan heldu zitzaion lehen aukera interesgarrien eta esanguratsuenetakoa “Arte Vasco” izeneko taldearen erakusketari esker izan zen, 1943an, “La Voz de España” gipuzkoar egunkariak antolatutakoa; erakusketa hori, martxoan Donostian ikusi zen eta geroago, apirilean, Zaragozako Libros Aretoan. Ondoren, Pilar Aranda margolari aragoarrak eskaini zion ezinbesteko laguntzari esker, urte bereko abenduan, Libros Aretoan bertan ere, Menchu Galen bakarkako erakusketa ikusteko aukera egon zen, bai kritikaren ikuspegitik baita salmenten aldetik erantzun ona lortuz.

Bestalde, azken urte horretan zehar, Menchu Gal Madrilera joaten hasi zen berriro ere, eta azkenik bertan bizitzen geratu zen. Berez, 1943an, Clan Galerian bere ibilbide artistikoarentzat ezinbesteko garrantzia izango duen taldeko erakusketa batean parte hartu zuen, garai hartako artista multzo garrantzitsu batekin batera —José Gutiérrez Solana, Daniel Vázquez Díaz, Pancho Cossío, Rafael Zabaleta eta Benjamín Palencia, besteen artean—; guztiek pinturarekiko zaletasunari eustera animatu zuten —berez, bertan bildutako artista guztien onespena jaso zuen— eta guztien artean konbentzitu zuten Madrilen geratzeko.

Madrilen igarotako lehen hilabete hauetan, Vázquez Díaz margolariaren tailerrera joan zen. Horregatik garai honetako bere margolanetan oraindik kubismoaren eragina nabarmentzen zen, forma eta koloreen erabilpen sinplifikatuan, plano mugatuen erabilpenean, paleta xaloan, kolore ilunetan eta orokorrean bere margolanetan, aurreko hamarkadan Europa erdialdeko pintura metafisikoa gogorazten zuten antzeko giroa sortuz.

Hala ere, 1944tik aurrera, Benjamín Palenciarekin sortuko duen harreman eta adiskidetasun estuak izan ziren Irungo margolariarengan benetako aldaketa eta fase berri baten hasiera ekarri zutenak. Gainera, Palenciari esker, Menchu Galek ezagutu eta adiskidetu egin zen ere bere antzeko ezaugarriak zituen bere belaunaldiko margolari talde batekin, geroago Madrilgo Eskola izenpean ezagutuko direnak. Beraiekin batera, Menchu Gal bere margolanak koloretsuak, indartsuak, gestualak eta intuitiboak ere izan zitezkeela konturatu zen, eta ondorioz, bai espresionismoaren eta baita fauvismoaren ezaugarriak



konbinatzen hasi zen, azken hau aurretik ezagutzen zuen estiloa bazen ere, orduan izango baita bere margolanetan eragina izaten hasi zenean. Fase honetan, Menchu Gal modu bizkorrean eta azkarrean margotzen hasi zen, baina baita zehaztasunarekin ere, pintzelada luzeak eta arinak eginez, eta konstanteki aldatzen ziren kolore eta tonu alaien eta bizien bitartez bizi pozaren dinamismoa transmitituz.

Hirugarren fase honen zehar, 1945ean hasi zena, bai lehiaketetara eta txapelketetara bai erakusketetara bere burua aurkeztean jarraitu zuen, eta berez, urte horretan bertan, Gipuzkoako Diputazioak artista gazteei zuzentzen eta antolatzen zien erakusketetan Enrique Albizurekin batera lehen saria lortu zuen. Urte honetan ere, bestalde, Madrilgo Buchhof Galeria ospetsuan taldeko erakusketa batean, “La joven escuela madrileña” izenburu esanguratsupean, parte hartzeko aukera izan zuen; erakusketa honek geroago taldea osatu zuten margolari gehienak bildu zituen, horien artean, Menchu Galez gain, taldeko emakume bakarra, Luis García Ochoa gipuzkoarra ere bertan zegoen, eta beste batzuen artean honako margolari hauek: Francisco San José, Álvaro Delgado, Gregorio del Olmo, Cirilo Martínez Novillo, Agustín Redondela, Enrique Núñez Castelo, Pedro Mozos eta Carlos Pascual de Lara.

1946an berriro ere Madrilgo Estilo Galerian bakarkako erakusketa bat antolatzea lortu zuen, eta ondoren, 1947an, Bartzelonako Franquesa Galerian. Azken urte honetatik aurrera, Menchu Galek proiektio nazionaleko lehiaketetara bere burua aurkeztea erabaki zuen, urte horretan bertan lehen eta azken aldiz Udazkeneko Saloian aurkeztuz, bertan erregimen frankistak gogoz bultzatzen zuen akademizismo atzerakoiaren aldekoak biltzen ziren, eta 1948tik aurrera, Arte Ederretan Nazio mailako Erakusketetara eta Lehiaketetara aurkeztean hasi zen, bertan modernitateak bere lekua izateko aukera baitzuen baina esfortzu askoren ondorioz.

Garai honetan Menchu Gal atzerrira bidaiak egiteko ohitura berreskuratu zuen, eta nagusiki berriro ere Frantziara abiatu zen, lortu zituen bekei eta laguntzei esker; horrela, 1947an, Harreman Kulturaletako Zuzendaritza Orokorrak ikasketetarako poltsa bat



eskaini zion, eta 1951an Frantziako Institutuak beka bat. Bidai hauetan, Menchu Galek fauvistekiko zaletasuna erakusten jarraitu zuen, eta arte garaikidean Pablo Picassoren garrantziaz ohartzeaz gain, Chaïm Soutine margolari espresionistaren lanarekin topo egin zuen, sasoiari aldarrikatzen hasi zen artista, hain zuzen, eta Irungo margolarian zuzeneko eragina izan zuena.

Urte hauetan ere, zehazki 1949an, Madrilgo Eskolako beste kide batzuekin batera Menchu Gal taldeko erakusketen bitartez Veneziako Bienaletan parte hartzen hasi zen, erakusketa hauekin erregimen frankistak nazioarteko giro kulturean bere itxura atzerakoia hobetzen saiatzen zen. Geroago, 1956an berriro ere aukeratua izan zen, baina bere parte hartzea hemen bukatu zen, bai bera bai bere belaunaldiko beste kideak ere baztertuak izan zirelako artista abstraktuengatik, orduan hauek, aurretik besteak bezala eta arrazoi berengatik, erregimen frankistaren onspena jaso zutelako. Hala ere, 1958an bere lanetako bat aukeratua eta aurkeztua izan zen Bruselako Erakusketa Unibertsaleko nazio pabilioian.

Madrilgo Eskolari dagokionez, 1950 ospaeren urtea izan zen, eskolak Madrilgo Biosca Galerian taldeko erakusketa batean bere aurkezpena egin baitzuen, arrakasta handia lortuz; gerra ondorengo Espainiako giroan, galeria honen lana eskolaren jarduera bultzatzeko ezinbestekoa izan zen. 1950. urtea Menchu Galentzat ere oso emankorra izan zen, Madrilgo Arte Modernoaren Nazio Museoan bakarkako erakusketa bat egitea lortzeaz gain, Euskal Herrian zehar beste hainbat taldeko erakusketetan parte hartu zuen, nabarmenduz Gipuzkoako lurraldean antolatutakoak, eta bereziki Irunen eta Donostian. Berez, azken hiri honetan bai Aranaz Darrás aretoan bai Gabonetako Lehiaketetan, —areto hark San Telmo Museoan 1950 eta 1965 bitartean antolatu zituenak — bere lana maiztasunez aurkeztu zuen. Garai hartan Irungo margolariak 1950eko lehenengo lehiaketan Donostia Hiria saria irabazi zuen eta bosgarren ekitaldian, 1954an, Gipuzkoako Diputazioaren saria.

Berrogeita hamargarren hamarkadan Menchu Galek Espainia lurraldeko areto desberdinen zehar erakusketa mordoa antolatzea lortu zuen, nabarmenduz, 1950. urtean Bilboko Studio Galerian



antolatutakoa, 1953an Libros Aretoan Zaragozan eta Estilo Galerian Madrilen, 1955ean Aranaz Darrás Aretoan Donostian eta Sur Galerian Santanderren, eta 1958an Jardin Galerian Bartzelonan. Bestalde, hamarkada honetan ere Arte Ederretako Hispanoamerikar Bienalak antolatzen hasi ziren eta hemen ere Menchu Galek bere burua aurkeztu zuen; horrela, 1951koa Madrilen antolatu zen, eta bigarrena 1953an Kuban, eta bigarrenean akuarelaren arloan lehen saria lortu zuen, eta 1955ean, Bartzelonako bienalean, erretratu hoberenaren lehen saria eskuratu zuen.

Arte Ederretan, Nazio mailako Erakusketa eta Lehiaketeki buruz, hamarkada hartan Menchu Galek ospe handiak lortu zituen, bat bestearen atzetik hainbat sari lortuz, lehena 1955ean, hirugarren domina bat, 1956an pintura arloan akzesita eta 1958an bigarren sari orokorra. Hala ere, goi mailako errekonozimendua ondorengo urteetan heldu zitzaion, aurrena, 1959an Pinturako Sari Nazionala irabazi baitzuen — Espainian hain sari garrantzitsua irabazten zuen lehen emakumea izan zen—, eta ondoren, 1961ean Biosca Galeriak antolatutako urteko margolari hoberenaren saria jaso zuenean, bigarren lekuan Antonio López margolaria geratuz.

Sariekin jarraituz, hamarkada honetan beste hainbat sari irabaztea lortu zuen, 1961ean “Familia Española” aldizkarian argitaratutako portada hoberenaren saria, 1962an Erakusketa Nazionalan bigarren saria, 1963an lehen saria Suteen Aurkako Defentsa izeneko erakundeak “El Fuego” izenburupean antolatutako txapelketan, eta 1966an Gipuzkoako Diputazioak Arte Ederretan Nazio mailako Erakusketetan eta Lehiaketetan aurkezteagatik eta lortutako sariengatik ere beste sari bat eskaini zion.

Sariaz gain, hirurogeiko hamarkada honen zehar Menchu Galek hainbat areto eta galerietan bere lana erakusten jarraitu zuen, adibidez, Gixoneko Altamira Aretoan 1961ean, urte berean Prisma Aretoan, 1964an Ateneoko Santa Catalina Aretoan eta 1969an Biosca Galerian, azken hiru hauek Madrilen, Bilboko Arte Ederretako Museoan 1966an eta hiri berean 1969an Illescas Galerian, eta 1967an Donostiako San Telmo Museoan.



1962an, Parisko Charpentier Galerian errealtatearen inguruan lan egiten zuten Espainiako margolari talde baten inguruan antolatutako taldeko erakusketa batean parte hartu zuelako, hiri bereko Stibel Galeria ospetsuak Irungo margolariari beraiekin Parisen bertan eskusibitatean lan egiteko kontratu bat eskaini zion, baina Menchu Galek aukera baztertu egin zuen. Geroago, 1964an New Yorken taldeko beste erakusketa batean parte hartu bazuen ere, orokorrean, Menchu Galen lana ez zuen Espainiako mugak zeharkatzea lortu, eta ondorioz, eraginik ez du izan nazioarteko testuinguruan.

Bere erakusketen bitartez hainbat aipamen eta salmentetan arakasta lortu bazituen ere, hirurogeigarreneko hamarkada honetan Menchu Galen lana fase berri baten barnean murgildu zen, guztiei frogatuz berriro ere, Irungo artistaren izpiritu geldiezina bere garapenarekin aurrera jarraitu nahi zuela. Zehazki, urte hauetan Menchu Galek abstrakzioan interesa ipini zuen, eta bere margolanetako konposizioetan espazio planoak eta hutsak tonu desberdinetako pintzeladekin betetzen hasi zen. Garai labor horretan —hirurogeita hamargarren hamarkadaren hasierarekin amaitu baitzen— figurazioarekiko fideltasuna mantendu bazuen ere, eta keinuan oinarritutako abstrakzio informalista eta espresiboa baztertu bazituen ere, bere lana egoera berri baterako aurrerapena egin zuen, non bertan espazioak berriro konstruktiboki antolatuak agertzen ziren formak geometrikoki plano eta kontraplanoen bitartez antolatzen zituelako, aurretik kubismoaren eraginpean egina zuen bezala; gainera, koloreekiko ere xalotasuna berreskuratu zuen, eta errealtatearen jarraitzaile fidela inoiz ez bazen izan ere, fase honen zehar, berekiko autonomi gehiago eskuratzea lortu zuen eta irudimenarekin inoiz baino gehiago esperimentatu zuen, figurazioaren trataera aske baten aldeko apustua eginez.

Deskribatu dugun fase hau, Menchu Galen ibilbidean egon den garairik interesgarrienetakoa, —eta bitxikeria moduan, berrogeigarren hamarkadaren hasieran bizitakoarekin lotura izan zuela aipatu eta nabarmendu behar da—, hirurogeita hamargarren hamarkadaren hasierarekin amaitu zen, orduan Irungo margolariak erabaki baitzuen lengoia espresiboa berreskuratzea, bai kolore fauivistak bai jarrera kementsua azpimarratuz eta



baieztatuz, berriro ere, berrogeita hamargarren hamarkadan ospea ekarri zizkioten lengoia eta ezaugarriak. Hala ere, eta beste modu batean ezin zitekeenez gertatu, Menchu Galek ezaugarri berriak gehitu zizkion bere estiloari, eta ondorioz, aurreko estilo batera itzuli baino hamarkada berriaren hasierarekin fase berri bati ekin zion. Horrela, garai honetan trazuan kemena mantentzeaz gain ere, pintzelada espontaneoak, naturaren ikuspegi dinamikoa, eta batez ere, kolorearekiko grina azpimarratu zituen, baina era berean, bere margolanetan konposizio helduagoak ere nabarmendu ziren eta paisaiaren aurrean ipintzeko orduan askatasun handiago bat, ziurrenik, abstrakzioaren izpiritu asketik hartuta. Berez, garai hau eta gero, Menchu Galek bodegoiak eta erretratuak egiteari utzi zion, eta soilik paisaiak margotu zituen, genero honetan segurua eta askea sentitzen baitzen, loturarik gabe.

Hirurogeita hamargarren hamarkadan zehar Menchu Galek Espainiako estatuaren zehar hainbat erakusketetan parte hartzen jarraitu zuen. Hauen artean, nabarmendu 1972an Santanderren eskaini zitzaion atzera begirako erakusketa, eta 1973an Hondarribiko Txantxagorri Galerian berak bertan antolatu zuena. 1978an, bestalde, Madrilgo Eskola eta El Paso taldea omentzeko asmotan Madrilgo Udalak antolatutako erakusketan ere parte hartu zuen. Bi urte lehenago, 1976an, Menchu Galek beste artista batzuekin batera, Luis Uranzuk hil aurretik idatzitako kontakizun liburuan, eta hil ostean argitaratutakoa “Bidasoako kondairak” izenburupean, ilustratzaile gisa parte hartu zuen; liburua, gainera, Jorge Oteizak idatzitako hitzaurre batekin azaldu zen.

Menchu Galek nagusiki olioia eta akuarela landu bazituen ere, hamarkada honetan eta hurrengoan ilustrazioaz gain lan garrantzitsua grabatuaren alorrean ere egin zuen; honen emaitza izango da 1985ean Angel de las Heras argitaratzaileak kaleratuko duen “Aguafuertes del Norte” izenburuko karpeta, Menchu Galek eginiko lan grafiko originalekin, eta Julio Caro Barojaren hitzaurrearekin.

Urtebete bat beranduago, 1986an, Menchu Galek “Bidasoako margolariak” izeneko erakusketa ibiltarian parte hartu zuen, Irungo, Gasteizko eta Iruñako hainbat aretotan egonik. Urte



honetan ere, Donostiako San Telmo Museoa erakusketa antologikoa eskaini zion, eta bertan Irungo margolariak ez zituen soilik bere ibilbideko lanak erakutsi, baita bere lan egin berria ere, hamarkada honetan maiztasun gutxiagorekin erakusketetan parte hartu bazuen ere, Irungo artistak lanean jarraitzen zuten, eta garrantzitsuagoa zena oraindik, bere bilakaerarekin aurrera egiten. Honen ondorioz, hamarkada honetan, Menchu Galen lanean akuarelaren eragina nabaritu zen, pintzelada askeago baten bitartez, eta margolanak azkarrago amaituz, orbanak forma bihurtzen baitzituen. Fase horretan, Irungo margolariaren konposizioetan azkenik perspektiba desagertu zen, eta espresionismo bizkor baino sostenitua garatu zuen, guztia lehendik prestatua baitzegoen, eta ausazkorik ez zegoen.

Menchu Galek laurogeita hamarreko hamarraldia, bere ospea eta belaunaldiko kideena aldarrikatzen zituzten bi erakusketa garrantzitsurekin hasi eta bukatu zuen. Lehenengoa, “La Escuela de Vallecas y la nueva visión del paisaje” izenburupean, 1990ean Madrilgo Udaleko Kultura Zentroak antolatatu zuen, eta bigarrena, bestalde, “La Figuración renovadora” izenburupean Madrilen ere ireki zen, Telefonica Fundazioak 1998an antolatuta.

Baina hamarkada honetako erakusketa garrantzitsuena Menchu Galentzat 1992an Donostiako Garibay kalean Kutxa Fundazioak eskainitakoa izan zen, atzera begirako erakusketa izateaz gain, katalogo bat argitaratu baitzen, Gregorio Díaz Ereño eta Camino Paredesek idatzita, Irungo artistari buruzko ikerketa luze eta xehe batekin bere bizitza eta ibilbideari buruzkoa.

Hamarraldi horretan, Menchu Galen ekoizpena gutxiagotzen hasi bazen ere, bera bere garapenarekin jarraitu zuen lasaitasun garai batetara heldu arte, margolan estatikoagoak sortuz, izpiritu bareago batek nagusitasuna izanik. Kolorea zein trazua aurrekoak badira ere, bere egungo ekoizpena ere hartuko lukeena, Menchu Galek bere estiloarekiko fideltasun mantenduz, ikuspegi lasaiagoa, barnera bilduta eta introspektiboagoa eskaintzen du, nahiz eta hausnarketarako gaitasun bera bertan egon, hori izan baita bere ibilbideko ezaugarrietako bat, eta baita egin duen apustua bere lana figurazioarekin hainbestetan lotu den azalkeriatik eta apaingarritasunetik urruntzeko. Berez, Menchu



Gal, bere ibilbidean margolan asko saldu baditu ere, bere margolanik gabe geratzea asko kostatu zaion artista da, eta honi esker, bere lanaren eta ibilbidearen inguruko bilduma garrantzitsu bat osatzea lortu du. Bilduma honekin, 2001ean Koldo Mitxelenako Ganbara Aretoak “Los Menchu Gal de Menchu Gal” izeneko erakusketa interesgarria eskaini zion Maya Aguirianoren zuzendaritzapean; bertan Gipuzkoako arte kritikak Irungo artistari buruz egindako ikerketa eta azterketarik hoberenetakoa burutu zuen.

Geroago, 2005ean, Irungo Udaletxeak beste atzera begirako erakusketa bat eskaini zion, oraingo honetan, Iñaki Moreno Ruiz de Eguinoren zuzendaritzapean Gipuzkoako Diputazio Foralak emandako sariarengatik: urrezko domina, probintziak eskaintzen duen sari garrantzitsuena eta lehenengo aldiz emakume batek irabazia. Erakusketarekin batera argitaratu zen katalogoan Iñaki Moreno Ruiz de Eguinok beste ikerketa interesgarria eta argia kaleratu zuen —datu eta anekdota askorekin—, Irungo artistaren bizia, lana eta ibilbidea hobekiago ezagutzen lagundu duena.

Amaitzeko, aipatu behar da, nahiz eta Menchu Galek gero eta maiztasun gutxiagorekin margotzen eta erakusten duen, bera lanean oraindik gogotsu jarraitzen duela, pintzelak ia egunero hartzen ditu eta noizean behin oraindik lanak erakusten ditu, 2006an Patxi Lozanoren zuzendaritzapean Bergarako Kultur Etxean gertatu zen bezala.

Konklusio eta amaiera

Menchu Galen estiloa eta ibilbidea bai arte alorrean bai pertsonalki hainbat komentario eta ikerketa sortu izan ditu, bibliografiari eskainitako hurrengo atalean biltzen ditugunak. Ikerketa osatuenak eta interesgarrienak, eta orain amaitzen dugun hau egiten lagundu dutenak, azken urte hauetan antolatutako hainbat atzera begirako erakusketetan eginak dira. Besteen artean, Gregorio Díaz Ereño, Camino Paredes, Iñaki Moreno Ruiz de Eguino edota Maya Aguiriano adituek, Irungo artistaren lana aztertu eta goraipatu dute, hainbat ekarpen eginez haren bizitzari, lanari eta ibilbideari buruz, Menchu Galen inguruko ikerkuntza aberastu dutenak.

Lehenago ere, historialari eta kritiko asko gazte garaietako hasieratik Menchu Galen lanaz arduratu ziren. Hauen artean, Carlos Arean, Santiago Arcediano, Camón Aznar, Ramón Faraldo, Enrique Lafuente Ferrari, Manuel Llano Gorostiza, José Moreno Galván, Manuel Sánchez Camargo edota Santos Torroella ditugu historialari eta kritiko garrantzitsuenak. Irungo margolariari eskainitako mugaketa labor batekin amaitzea gustatuko litzaiguke, hain zuen, Antonio Bonet Correak “La pintura vigorosa y sensible de Menchu Gal” izeneko testutik ateratakoarekin. 1986an Donostiako San Telmo Museoa eginiko atzera begirako erakusketarako argitaratutako katalogoan idatzi zuen, eta idazlearen hitzetan Irungo margolariaren estiloa eta pertsonalitatea laburbiltzen dela uste dugu.

“Autodidakta, bilatuko duen artean bere gustura eta izaerara moldatu beharko dira joerak. la guztiz paisaiara eta erretratura eskainita, bereziki emakumeetan eta umeetan, Menchu Galek emozioaren eta asmo formalaren artean aurkitzen du



espresatzeko modua, ofizioa eta sentsibilitatearen artean. Geroztik bere pintura espresionismo eta errealismo zorrotzaren eta zehatzaren arteko oreka lortzeagatik nabarmendu da. Menchu Gal, intuitibo eta azkarra betearazteko orduan, gogoetarako margolaria ere izango da, bere artea azalkeetatik edota apaingarritasunetik urrun dadin borrokatuz, piktorikoki eta kontzeptualki dentsitatea izan dezan, begirada zuzenaren transkripzioak iraunkor denaren lasaitasun eta dentsitatea ahalbidetuz”.

Datos biográficos



Pintora y mujer

Mujer, pintora, figuración, modernidad, vanguardia, guerra civil, franquismo, neofiguración... son palabras que, combinadas, aunque pueden darnos diferentes resultados, uno de ellos, en nuestro contexto, tiene nombre y apellidos muy concretos: L enchu Gal Nrendain. La pintora figurativa irunesa L enchu Gal (Irun, 1918) ha sido la segunda mujer galardonada con el premio L anuel Lekuona no sólo por encarnar en su persona todos estos valores sino por haberlo logrado, además, de una manera singular, independiente, coherente, valiente y excepcional, en una circunstancias tanto artísticas como históricas difíciles de afrontar.

Y es que a su condición de mujer en un ambiente artístico dominado por la figura masculina, hay que sumarle una apuesta por la figuración a contracorriente en un período en el que las vanguardias más radicales recibieron todos los parabienes. En cuanto a las circunstancias históricas, hay que recordar que el siglo XX español, hasta la llegada de la democracia, no fue un período idóneo para fomentar la creación artística; primero la guerra civil y posteriormente el régimen franquista poco o nada ayudaron a que los artistas que por vocación querían dedicarse a la pintura y vivir de ella, pudieran conseguirlo. Sin embargo, afortunadamente, en este ambiente artístico y en estas circunstancias históricas, algunos artistas lograron con mucho esfuerzo hacer posible su sueño y ya no sólo dedicarse a la pintura, sino además desarrollar una trayectoria coherente apostando por el lenguaje artístico en el que creían.



